

# Poloniar elitea, zuri-beltzean

Krzysztof Gieraltowski argazkilariak 1972 eta 1995 bitartean bere herrialdeko pertsona ospetsuei egindako 44 erretratu ikusgai jarri dituzte Donostiako Arteko galerian. Bisaia ilun eta tristeak ageri dituzte gehien-gehienek



Argazkia: JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS  
2016-08-10 / Mikel Lizarralde

**Z**uri-beltzean erretratatuak eta bisaia, oro har, ilun, triste edo saminduarekin. Horrela ageri dira Krzysztof Gieraltowski argazkilari poloniarrek (Varsovia, 1938) 1972tik eta 1995era bitartean egin zituen erretratuetoako pertsona ia guztiak. Herrialdeko *intelligentsia*-ko kideak dira denak; politikariak batzuk, baina artistak batik bat: musikariak, idazleak, antzerkigileak, pentsalariak, aktoreak... Denak ezagunak Polonian, eta haietariko asko baita handik kanpo ere. Gieraltowskik egindako ehunka erretratu «subjektibo» horietako 44 Donostiako Arteko

galerian jarri dituzte ikusgai orain, Donostia 2016 eta Wroclaw 2016 kultur hiriburuen arteko kultur truke bati esker. *Indibidualitate poloniarra* erakusketa urriaren 1era arte ikusi ahal izango da.

«Ez dutela irribarrerik? Ez, ez. Erretratuak Polonian komunismoa indarrean zegoenean eginak daude, eta garai hartan ez zegoen irribarre egiteko arrazoi askorik». Gieraltowskik, ordea, Polonian «jende inportantea» izan dela nabarmentzeko baliatu nahi izan du bere proiektua; ez horrenbeste garai baten erretratu politikoa egiteko. Ez dira ezerezetik edo nahi pertsonaletik sortutako erretratuak, nahiz eta emaitzak agerian uzten duen argazkilariaren begirada oso subjektiboa dela. Izan ere, hainbat aldizkarik egindako enkarguen ondorio izan arren, Gieraltowskik «konplizitatea» lortu nahi zuen pertsona ospetsuekin, «haien barruan ezkututzen dena azaleratzeko». Eta, horretarako, ikertu egin behar lehendabizi, aurrez aurre jarri aitzineko lanak egiteko.

«Argazkietan ageri diren gehienek nahiko garesti ordaindu behar izan dute beren lana». Ez da Gieraltowskiren esaldi hutsa, argazkietako askok nolabaiteko dekadentzia bat azaleratzen dutelako. Beste batzuek, berriz, argazkilariak berak idatzitako argazki oina behar dute barruan gordetzen duten guztia ulertzeko. Adibide bat: Ryszard Kapuscinski (1932-2007) kazetari eta idazlearen erretratu lausotua, argi zuriz gainezka dagoena. «Erretratu bakoitzak bere istorioa dauka. Kapuscinskirena, adibidez, idazleak Afrikan bidaia luze bat egin ondoren atera nuen. Gaixo zegoen, ahul, eta hotzikarak zituen. Horregatik, hiru negatiboak bata bestearen gainean jarri nituen, pertsonaiak zuen dardara hori islatzeko». Dekadentzia islatzen du, halaber, Stanisława Szeligowska aktoreari 1979an egindako argazkiak ere. Irudiaren eskuinaldean ageri da Szeligowska zahartu bat, eta lehen planoan, berriz, biloba, nahi gabeko keinu bat egiten. «Begi keinu horrek ukitu dekadente bat eman zion Szeligowskaren erretratuari. Izan ere, dekadentzia zerion Poznango etxe hari». Erakusketan ageri den emakume bakanetakoa da Szeligowska — Nina Andrycz eta Kalina Jedrusik aktoreak eta Magdalena Abakanowicz eskultorea dira agertzen diren beste hirurak—, eta garai batean andrazkoek gizaratean zuten pisuaren seinaleztat du hori argazkilariak. «Emakumeak ez ziren inportanteak, baina, beste leku batzuetan bezala, hori ere aldatzen ari da Polonian».

Aipagarria da Andrycz egindako argazkia ere; bai irudiaren adierazkortasunagatik —aktorea alboz ageri da, ilunpetan eta oso gertutik

erretratatua—, bai Gieraltowskik idatzi eta argazki azpian ageri den testuak erakusten duen tentsioagatik: «Gertutik ikusi nahi izan nuen Nina Andrycz izarra. Topaketa etsigarria izan zen biontzat. Bera aspaldiko espirituak gogora ekartzen ahalegindu zen. Ni ez nintzen gai izan aktoreak berarekin lan egiten zuten 'Europako argazkilaririk onenei' eskatzen zien maila erakusteko».

## **Nekearen seinaleak**

Irudien artean nabarmentzen da Krzysztof Kieslowski zinemagileari (1941-1996) egindakoa ere. Sei argazki txikiko serie bat da, eta horietan *Bleu / Blanc / Rouge* trilogiako zuzendaria ageri da neke itxurarekin, eskuekin begiak igurzten: «Sintomatikoa iruditu zitzaidan zuzendariaren keinu hori». Ez da erakusketan ageri den zinemagile bakarra. Roman Polanskirekin behin baino gehiagotan izan zen harremanetan argazkilaria, nahiz eta noiz edo noiz argazki saioak bertan behera utzi behar izan zituzten. Artekon jarritako argazkian bizarra egiten ari da Polanski, Varsoviako Wola antzokian *Amadeus* filma estreinatu aurretik. Andrzej Wajdaren irudi ilun bat ere bada erakusketan. Ilunpetan, bi argi sarrera txiki besterik ez direla argazkian, apenas ikusten zaion aurpegia.

Gieraltowskik Donostiara ekarri dituen argazkietan ageri dira, era berean, Joan Paulo II.a aita saildua —irribarre txiki bat erakusten duten bakanetakoa—; Lech Walesa, Poloniako presidente izateko hautagai zenean; Czeslaw Milosz idazle eta Nobel sariduna; eta Tomasz Stanko jazz musikaria.

2009an Gieraltowskik portfolio bat argitaratu zuen polonieraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez, eta, orain, Donostian ikusgai dagoen erakusketa dela eta, portfolioaren argitalpen berezi bat egin dute, euskaraz, gaztelaniaz, polonieraz eta ingelesez. Liburu artistiko horretan argazkiak eta dagozkien testu aipamenak agertzen dira, Varsoviako artisauek egindako A3 formatuko kartoizko kutxa batean gordeta.

**[http://www.berria.eus/paperekoa/1838/022/001/2016-08-10/poloniar\\_elitea\\_zuri\\_beltzean.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1838/022/001/2016-08-10/poloniar_elitea_zuri_beltzean.htm)**